



MATEMATIKAKO GRADUA

4. MAILAKO IKASLEAREN GIDA

2024-2025 IKASTURTEA

Edukien taula

1.- Matematikako Graduari buruzko informazioa.....	3
Aurkezpena	3
Titulazioaren gaitasunak.....	3
Graduko ikasketen egitura	3
Laugarren mailako irakasgaiak graduaren testuinguruan	4
Egin beharreko jarduera motak.....	5
Gradu Amaierako Lana (GrAL)	5
Mugikortasuna	5
Kanpoko praktika akademikoak	5
Tutoretza akademikoak.....	6
Tutoretza Plana (TP)	6
Matematika Saileko liburutegia	6
Koordinazioa	6
Bestelako informazio interesgarria	7
2.- Mailari buruzko informazio espezifikoa.....	7
Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan.....	7
Egutegia, ordutegia eta azterketak.....	7
Irakasleak	7
Jarduerak laugarren mailako ikasleentzat	7
3.- Ikasturteko irakasgaien irakaskuntza gidak.....	8

Gida hau Matematikako Graduko Ikasketa Batzordeak (MATGIB) egin du

1.- Matematikako Graduari buruzko informazioa

Aurkezpena

Matematikako Graduako ikasketekin matematikako prestakuntza orokorra lortu nahi da, diziplina zientifiko gisa, eta laneko jarduerak egiteko prestakuntza eskuratzera eta hainbat eremutan hartutako trebetasunak aplikatzeko gaitasuna garatzera bideratuta dago. Eremu horiek zientifikoak izan daitezke (haien bi alderdiekin: irakaskuntza eta ikerketa), edo industria, enpresa eta administrazioko goi mailetan aplikatzeari lotutakoak.

Beraz, Matematikan Graduatu tituluaren helburua hainbat eremutako arazoen formulazio matematikoa, analisia, ebazpena eta, kasu batzuetan, tratamendu informatikoa egitea da. Hauek izan daitezke eremu horietako batzuk: oinarrizko zientziak, gizarte eta bizitzako zientziak, ingeniari, finantza, aholkularitza, etab.

Titulazioaren gaitasunak

Matematikako Graduak ondorengoetarako gaitzen du:

- T1. Matematika-arloen helburua, metodoak eta baliagarritasuna ezagutzea, eta haien oinarrizko kontzeptuak eta emaitzak zein diren jakitea.
- T2. Matematikaren hainbat arlotako teorema klasiko batzuen frogapen zehatzak ezagutzea.
- T3. Objektu matematikoen, behatutako errealitatearen eta beste eremu batzuen egitura-propietateen abstrakzioa egiten eta noizbehinkako propietate hutsetatik bereizten jakitea, eta testuinguru abstraktu horretan arrazoiketa matematikoa erabiltzen jakitea.
- T4. Matematikako problemak oinarrizko kalkuluko eta bestelako abilezien bidez ebaztea, eta ebazpena eskuragarri dauden tresnen eta denbora- eta baliabide-mugen arabera planifikatzea.
- T5. Eskuraturako ezagutzak eta analisirako eta abstrakziorako gaitasuna problemaren definizio eta planteamenduan eta soluzioen bilaketan aplikatzea, testuinguru akademikoetan zein lanbide-testuinguruetan.
- T6. Tresna matematikoen erabilera eskatzen duten problema zientifiko, teknologiko edo beste eremu batzuetakoei buruzko datu, informazio edo emaitza garrantzitsuak bildu eta interpretatzea.
- T7. Esperimentatzeko eta kasu bakoitzerako konputazio-ingurune egokian problema matematikoak ebazteko aplikazio informatikoak erabiltzen jakitea.
- T8. Hizkuntza matematikoa ulertu eta erabiltzea, eta ezagutza, prozedura, emaitza eta ideia matematikoak idatziz zein ahoz komunikatzea.
- T9. Ondorengo ikasketak autonomia-maila handiarekin egiteko beharrezkoak diren ikaskuntza-trebetasunak garatzea.
- T10. Matematikan baliabide bibliografikoak bilatzeko tresnak erabiltzea.

Graduko ikasketen egitura

ECTS kredituak edo kreditu europarrak ikasketen Planean jasotako helburuak lortzeko ikasle bakoitzak egin beharreko ikasketen lanaren bolumen edo zama osoa neurtzen du. ECTS kreditu bakoitza ikaslearen 25 ordu arteko lan zamari dagokio eta horietatik 10 aurrez-aurre egin beharrekoak dira (eskola magistralen, ikasgelako praktiken, ordenagailuko praktiken edo mintegien bidez) eta 15 ordu ikasleak irakasgaietan egin behar dituen lan eta jarduerari dagozkie. Matematikako Graduak 30 kredituko 8 lauhileko izango ditu. Horrela, gradua amaitzeko 240 ECTS bete behar dira.

Matematikako Gradua urte osoko edo lauhileko irakasgaietan oinarrituta antolatzen da. Denboraren banaketa 1. Taulan laburbilduta dago:

1. Taula: Matematikako Graduko Egitura

	Lehenengo lauhilekoa	Bigarren lauhilekoa
1. maila (60 ECTS oinarritzko irakasgaietan)	Algebra Lineala eta Geometria I (12 ECTS)	
	Fisika Orokorra (12 ECTS)	
	Kalkulu Diferentziala eta Integrala I (12 ECTS)	
	Konputaziorako Sarrera (6 ECTS)	Estatistika Deskribatzailea (6 ECTS)
	Oinarritzko Matematika (6 ECTS)	Programazioaren Oinarriak (6 ECTS)
2. maila (60 ECTS nahitaezko irakasgaietan)	Kalkulu Diferentziala eta Integrala II (15 ECTS)	
	Algebra Lineala eta Geometria II (6 ECTS)	Egitura Aljebraikoak (6 ECTS)
	Matematika Diskretua (6 ECTS)	Kurbak eta Gainazalak (9 ECTS)
	Topologia (6 ECTS)	Probabilitateen Kalkulua (6 ECTS)
	Zenbakizko Metodoak I (6 ECTS)	
3. maila (60 ECTS nahitaezko irakasgaietan)	Ekuazio Diferentzialak (12 ECTS)	
	Algebra Trukakorra (6 ECTS)	Ekuazio Aljebraikoak (6 ECTS)
	Analisi Konplexua (6 ECTS)	Eredu Matematikoak (6 ECTS)
	Inferentzia Estatistikoa (6 ECTS)	Kurben eta Gainazalen Geometria Globala (6 ECTS)
	Neurria eta Integrazioa (6 ECTS)	Zenbakizko Metodoak II (6 ECTS)
4. maila	Hautazko 8 irakasgai eta Gradu Amaierako Lana. Bi espezialitate jaso ahal dira: "Matematika Hutsa" eta "Matematika Aplikatua, Estatistika eta Konputazioa"	

Aipamen edo espezialitate bat lortzeko nahitaezkoa da gutxienez aipamen horretako 5 irakasgai egitea. Informazio gehiago:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-matematicas>

Laugarren mailako irakasgaiak graduaren testuinguruan

Bigarren eta hirugarren mailan bezala, laugarren mailako irakasgaiak Matematikako Gradurako espezifikoa dira, Idatzizko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz eta Ahozko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz irakasgaiak ezik. Horietako batzuek aurreko urteetako irakasgai jarraipen naturala ematen diete eta gainerakoak matematikako adarren ikasketan sakontzen dira: Algebra, Analisi Matematikoa, Estatistika, Geometria eta Topologia, Matematika Aplikatua eta Probabilitatea. Aurreko urteetan ez bezala, graduaren laugarren mailako irakasgaiak hautazkoak dira.

Hautazko irakasgaiez gain, ikasle bakoitzak Gradu Amaierako Lana egin beharko du. Lan hau era autonomoan garatuko du, zuzendari batek edo gehiagok gainbegiratuta eta gidatuta, eta bertan eduki matematiko nabaria duen problema teoriko edo praktikoa bat aztertuko du. Gradu Amaierako Lana egindakoan, ikasleak lan horren aurkezpena egin beharko du epaimahai baten aurrean.

2024-2025 ikasturtean eskainiko diren hautazko irakasgaiak hauek dira:

Lehenengo lauhilekoa	Bigarren lauhilekoa
Aldagai Anitzeko Analisisa (MAEC)	Algebraic Geometry (MP)
Ampliación de Métodos Numéricos (MAEC)	Ahozko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz
Deribatu Partzialetako Ekuazioak (MP) (MAEC)	Ampliación de Topología (MP)
Idatzizko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz	Diseño de Algoritmos (MAEC)
Kodeak eta Kriptografia (MP) (MAEC)	Numerical Solutions for Differential Equations (MAEC)
Functional Analysis (MP)	Probabilitate eta Prozesu Estokastikoak (MAEC)
Grupos y Representaciones (MP)	Teoría de Números (MP)
Programación Matemática (MAEC)	Varietades Diferenciables (MP)

(MAEC): Matematika Aplikatua, Estatistika eta Konputazioa aipamena

(MP): Matematika Hutsa aipamena

Egin beharreko jarduera motak

Ikasgelan ikasteko prozesua hainbat jardueraren bidez gauzatzen da: eskola magistralak, ikasgelako praktika taldeak, ordenagailuko praktikak eta mintegiak, ikasleen parte-hartze aktiboaren mailaren arabera.

Ikasturtean zehar, ikasleak irakasgai guztietan hainbat jarduera garatu beharko ditu haren ikaste-prozesuaren barruan. Jarduera hauek irakasgaien gidetan modu orokorrean azaltzen dira, eta irakasgai bakoitzari dagokion irakaskuntza-taldeak jarduera horien inguruko informazio zehatzagoa emango du irakasgaia garatzeko orduan.

Gradu Amaierako Lana (GrAL)

Gradu Amaierako Lana (GrAL) ikasle bakoitzak zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean banaka egin behar duen proiektu, memoria edo azterlana da. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, graduako ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Gradu Amaierako Lana egin eta Defendatzeari Buruzko Arautegian ikasle bakoitzak GrALa egiten hasteko ezagutu behar dituzten fase eta bete beharreko baldintzen inguruko xehetasunak azaltzen dira. Hurrengoak dira 2024-2025 ikasturteko data garrantzitsuak.

Aurreinskripzioa 2024ko uztailak 10-12 (biak barne): online betetzeko formularioaren bidezko aurreinskripzioa: https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/tfg_aurreinskripzioa

Inskripzioa edo izen-ematea: GrALen izena emateko, 72 kreditu eduki daitezke gehienez egin gabe (4. mailako 60 kredituak eta bigarren edo hirugarren kurtsoetatik gehienez gera daitezkeen 12). Bi aukera daude:

- **2024ko irailak 2-6** (biak barne): irakasleek ikasleekin **adostutako lanen** izenak ematen dituzte eta, aldi berean, **adostu gabeko lanen** gaiak eskaintzen dituzte, gero ikasleek hautatu ditzaten.
- **2024ko irailak 18-20** (biak barne): **adostutako lanik ez** duten ikasleek GAUREn bidez egiten dute gaien aukeraketa. Zerrendatik aukeratzen dira lehentasun ordenaren arabera.

Esleipena 2024ko irailak 23-27 (biak barne): GrALen gaien behin betiko esleipena egindakoan ikasleei posta elektronikoko bidez mezua helarazten zaie.

Matrikulazioa, memoria entregatzea eta defentsa: matrikulak bi defentsa deialditarako eskubidea ematen du ikasturteko. Matrikulatzeko, ikasleak Graduako kreditu guztiak gaindituta izan behar ditu, GRALarenak izan ezik. 2024-25 ikasturtean, honako hauek izango dira matrikularako eta defentsarako datak:

Deialdia	Matrikula eta Memoria entregatzea	Defentsa
Otsaila	2025ko otsailaren 12-14	2025ko martxoaren 4-6
Ekaina	2025ko ekainaren 18-20	2025ko uztailaren 8-10
Abuztua	2025ko uztailaren 22-24	2025ko irailaren 2-4

GrALari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/trabajos-fin-grado>

Matematikako Graduako araudi espezifikoa:

https://www.ehu.eus/documents/19559/1482414/MAT_TFG_eus.pdf/dda29c1a-cc6e-4e8-3404-107e20eee15a?t=1653386379441

Mugikortasuna

Fakultateak parte hartzen duen mugikortasun programen bidez, ikasleek aukera izango dute lauhileko edo ikasturte oso bat beste unibertsitate batean ikasteko. Bete beharreko baldintzak eta kontuan izan beharreko gainerako informazioa hurrengo estekan ikus daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>

Kanpoko praktika akademikoak

Kanpoko erakundeetan praktikak egiteak aukerak zabaltzen dizkie ikasleei lan-munduan sartzeko, eta ezagutza eta gaitasun praktikoak bereganatzeaz ez ezik, lan-eskarmentua ere eskuratzen dute.

Matematikako Graduan kanpoko praktika akademikoak egin daitezke, curriculumetik kanpokoak; hau da, hautazkoak dira. Horiek egiteko, 120 ECTS gainditu behar dira. Informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insercion-laboral>

Tutoretza akademikoak

Tutoretza akademikoa, funtsean, ikasleei aholkularitza eta orientazio akademikoa ematean datza, irakasle baten bidez. Aholkularitza honi esker ikasleak laguntza jasoko du ikasten dituen irakasgaietan. Lauhileko bakoitzaren hasieran irakasle bakoitzak bere tutoretza-ordutegien berri emango du.

Tutoretza Plana (TP)

Tutoretza Planaren (TP) bidez ikasleei irakasle tutore bat edukitzeko aukera eskaintzen zaie eta, horrela, unibertsitateko bizitzaren alderdi guztietan integratzea errazagoa izango dute. Horrez gain, irakasle tutore bakoitzak ibilbide akademiko osoan zehar orientatuko ditu bere ikasleak.

Irakasle tutoreen xedeak hurrengo hauek dira:

- Prestakuntza integraleko prozesuan ikasleei laguntzea, ikuspegi akademiko, pertsonal eta profesionalean.
- Ikasleei Fakultatearen jarduera akademikoan integratzen laguntzea.
- Ikasleei unibertsitatean eskuragarri dituzten zerbitzu eta jardueren berri ematea.
- Ikasketa aldian ager daitezkeen zailtasunak identifikatzea eta ikasteko gaitasun eta estrategien garapena erraztea.
- Erabakiak hartzen laguntzea, bereziki curriculum ibilbidea aukeratu behar duenean.
- Ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako interesgarria izan daitekeen informazioa ematea.

Lehenengo mailaren hasieran, irakasle tutore bana esleitzen zaie Matematikako Graduko ikasleei. Esleipen hori indarrean egongo da gradua lortu arte.

Matematika Saileko liburutegia

Matematika Sailak dibulgazio matematikako eta logikako problemei buruzko liburu bilduma du interesdunen eskura.

<https://www.ehu.eus/eu/web/departamento-matematicas/biblioteca>

web orrian eskuragarri dauden liburuen zerrenda dago eta horiek maileguan hartzeko eskaera egiteko modua azaltzen da.

Koordinazioa

Gradu Ikasketen Batzordea (GIB) graduko koordinazioaz arduratzen da, hau da, graduaren curriculumaren garapenez, jarraipenez, errebisioaz eta hobekuntzaz arduratzen da. Gida hau idazterakoan, honako hauek osatzen dute Matematikako Graduko GIB:

Mota	Koordinatzailea	Kontaktua
Gradua TP	Ana María Valle Martín Matematika Saila	anamaria.valle@ehu.eus 946015467 E.P0.19
1. maila	Aingeru Fernández Bertolin Matematika Saila	aingeru.fernandez@ehu.eus 946012659 E.P0.9
2. maila	Leticia Hernando Rodríguez Matematika Saila	leticia.hernando@ehu.eus 946015459 E.P1.17
3. maila	Txomin Ramirez Alzola Matematika Saila	txomin.ramirez@ehu.eus 946015463 E.P1.5
4. maila GrAL	Miren Agurtzane Amparan Larrabaster Matematika Saila	agurtzane.amparan@ehu.eus 946015466 E.S1.4

Matematikako Graduko GIBari buruzko informazio gaurkotua hurrengo estekan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/comisiones-grado#GradulkasketenBatzor8>

Gainera, graduko irakasgai bakoitzerako koordinatzaile bat izendatu da, zeina irakasgai hura ematen duen irakasle-taldea koordinatzeaz arduratuko baita. Matematikako Graduko irakasgaietako koordinatzaileak hurrengo estekan kontsultatu daitezke:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/coordinacion-asignaturas-mat>

Bestelako informazio interesgarria

Graduko irakasgaietan, irakasleek ikasgela birtuala erabiltzen dute irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Ikasgela horiek eGelan daude (<https://egela.ehu.es>). eGelan sartzeko LDAP erabiltzaile-izena eta pasahitza behar da, ikasle bakoitzari esleitzen zaiona ikasle berriko matrikula egitean. LDAP erabiltzaile-izena eta pasahitza ere GAUREn sartzeko erabiltzen dira, zeina administrazio tramiteak eta ikasleen bizitza akademikoari lotutako datuak kontsultatzeko erabiltzen den erreminta informatikoa baita.

Matematikako Graduan matrikulatutako ikasle bakoitzak posta elektronikoko korporatibo propioa dauka; kasu honetan ere, ikasle berriko matrikula egitean helbidea eta pasahitza esleitzen zaio ikasle bakoitzari. Helbide honetara iristen dira irakasleek, eGelan, dekanotza taldeak eta unibertsitateko bestelako estamentuek bidalitako mezuak. Helbide honetara iristen diren mezuak posta elektronikoko pertsonalera birbideratu daitezke. Informazio gehiago hurrengo estekan:

https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc_alumnado

Partekatutako fitxategi gordailu-zerbitzua ere badago (<https://www.ehu.es/eu/group/ikt-tic/bildu>).

Posta korporatiboaren erabilerari edo UPV/EHUko zerbitzu informatikoei lotutako edozein zalantza edo arazo izanez gero, gomendagarria da EAZrekin (Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua) kontaktatzea <https://lagun.ehu.es/CAisd/pdmweb.exe> web orriaren bidez, LDAP erabiltzaile-izena eta pasahitza erabiliz. EAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.es/eu/web/ikt-tic/eaz-cau> estekan aurkitu daiteke.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzuak (ZTFIAZ) aholku ematen die ikasleei, eta enpresetako praktiketan zein akademia-elkartruke programetan parte hartzeko beharrezko izapideez ere arduratzen da. Fakultateko Idazkaritzan kokatuta dago. ZTFIAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/atencion-estudiantes> estekan aurkitu daiteke.

Matematikako Graduari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-matematicas>

Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea>

2.- Mailari buruzko informazio espezifikoa

Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan

Irakasgai batean talde bat baino gehiago dagoen kasuetan, ikasleei bere taldea zein den jakinaraziko zaie lauhileko bakoitzeko lehen asteetan zehar.

Egutegia, ordutegia eta azterketak

Ikastegiko eskola-egutegia webgune honetan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/calendario>

Ordutegi ofiziala, jarduera bakoitza emango den ikasgelen inguruko informazioa eta azterketen egutegi ofiziala Fakultateko web-orriari argitaratu eta eguneratuko dira. Hurrengo estekan kontsultatu daitezke: <https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak>

Horrez gain, aurreko estekan ere graduko ikasgaietarako izendatutako 5. eta 6. deialdiko tribunalak kontsultatu daitezke.

Irakasleak

Talde honetako irakasgaietako mota desberdinak (teoria, mintegiak, ...) ematen dituzten irakasleen informazioa (harremanetarako datuak, tutoretza orduak) ondoko estekan aurki daiteke:

<https://www.ehu.es/eu/web/graduak/matematikako-gradua/irakasleak>

Irakasle batek aurreko estekan duen informazioa eskuratzeko, nahikoa da haren izenean klik egitea.

Jarduerak laugarren mailako ikasleentzat

Laugarren mailako ikasleek GrA(L)aren Defentsa eraginkorraren ikastaro bat egin ahal izango dute.

3.- Ikasturteko irakasgaien irakaskuntza gidak

Gidak ordena alfabetikoaren arabera ordenatuta daude. Gida bakoitza irakasgaia emango den hizkuntzan agertzen da. Ingelesez ematen diren irakasgaietarako B2 maila izatea gutxienez gomendatzen da, hauek ondo jarraitu eta ulertu ahal izateko.

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GMATEM31 - Matematikako Gradua

Ikastaroa 4. maila

IRAKASGAIA

28279 - Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

IRAKASGAI HAU EUSKARAZ BAINO EZ DA ESKAINTZEN.

Irakasgai hau hautazkoa da Matematika Graduko 4. mailako ikasleentzat. Komunikazio zientifiko-teknikoa landuko da: dokumentazioa, berrikuspen bibliografikoak eta testu-genero ohikoenak. Horretarako, espezializazio maila desberdinetako idatzizko eta ahozko testuak landuko dira: ikerketa-artikuluak, dibulgazioak, poster zientifikoak, ahozko aurkezpenak, dibulgazio-hitzaldiak e.a. Berariaz sakonduko da ahozko komunikazioan. Matematikaren alorreko terminologia eta adierazpideak ere landuko dira aipatutako testu-generoekin lotuta.

Lotura zuzena du gradu berean hautazko irakasgai den Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz (IKZTE) irakasgaiarekin (4. mailan egin daitekeena hau ere, lehenengo lauhilekoan). Nolanahi ere, IKZTE irakasgai gehiago sakonduko da idatzizko testu-generoetan, eta Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz (AKZTE) irakasgai honetan, ahozko eta idatzizko testuak landuko badira ere, lan-ildo nagusia ahozko komunikazioaren bereizgarriak izango dira.

Irakasgaiok lotura zuzena dute baita Matematika Graduko zenbait gaitasun zehatzekin ere:

- T8. Hizkuntza matematikoa ulertu eta erabiltzea, eta ezagutza, prozedura, emaitza eta ideia matematikoa idatziz zein ahoz komunikatzea.
- T9. Ondorengo ikasketak autonomia-maila handiarekin egiteko beharrezkoak diren ikaskuntza-trebetasunak garatzea.
- T10. Matematikan baliabide bibliografikoak bilatzeko tresnak erabiltzea.

Horretaz gain, gradu amaierako lana prestatzen ari diren ikasleei oso baliagarri izango zaie irakasgai hau, txosten zientifikoak idazteko eta ahozko aurkezpen akademikoetarako beharrezkoak diren baliabideak eta trebetasunak landuko baitira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Goi-mailako tituludunek euskararen erabilera eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan.
2. Informazio zientifikoak bilatzea, ulertzea, sintetizatzea eta kritikoki aztertzea.
3. Ikerkuntzarekin, aholkularitza teknikoarekin eta irakaskuntzarekin lotutako arazoei aurre egiteko bideak adostea, aurkeztea eta argudiatzea, elkarlana baliatuta.
4. Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (bereziki Interneten eskuragarri daudenak), askotariko komunikazio-egoeretan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan.
5. Zientzia arloko gaiak komunikatzea, komunikazio-testuinguruaren eskakizunak aintzat hartuta: dibulgazio-hitzaldiak, klase magistralak, kongresuetarako komunikazioak, hitzaldietarako euskarri idatzia, poster zientifikoak...
6. Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

EGITARAU TEORIKOA

1. GAIA: Hizkuntzen kudeaketa ingurune akademiko eta profesional eleaniztunean
 - 1.1. Hizkuntza-eskubideak eta hizkuntza gutxituak
 - 1.2. Hizkuntza gutxituak eta hizkuntza-plangintza
 - 1.3. Euskararen normalizazio-plangintza
 - 1.4. Hizkuntza-ukipena, mailegutza, kalkoak eta hizkuntza-mendekotasuna
 - 1.5. Termino-sorkuntzarako bideoak eta hizkuntza-ukipena
 - 1.6. Hizkuntzen kudeaketarako praktika onak testuinguru akademiko eta profesional eleaniztunean
2. GAIA: Hizkuntza-aldaerak eta hiztunen errepertorio linguistikoa
 - 2.1. Hizkuntza-aldaerak: aldaera geografikoak vs aldaera funtzionalak
 - 2.2. Idatzizko eta ahozko testuen alderaketa
 - 2.3. Ortografia eta ortotipografia
 - 2.4. Puntuazioa eta prosodia
 - 2.5. Aldakortasuna ahozko erregistroetan
 - 2.6. Hitztunen errepertorio linguistikoa eta komunikazio formala
 - 2.7. Euskara Batuaren Ahoskera zaindua

- 3. GAIA: Ahozkorako diskurtso-estrategiak
 - 3.1. Ahozko komunikazio akademikoa
 - 3.2. Hiztegi eta fraseologia akademikoa: terminoak, kolokazioak eta diskurtso-formulak
 - 3.3. Pertsuasioa komunikazio akademiko eta profesional multimodalean
 - 3.4. Baliabide erretorikoak: galdera erretorikoak, errepikapena, adibidegintza, birformulazioa
 - 3.5. Baliabide fonikoak: etenak, intonazioa
 - 3.6 Baliabide ez-berbalak

- 4. GAIA: Euskararen lantze funtzionala alor akademikoan
 - 4.1. Hizkuntza gutxituen biziberritzea: terminologia eta fraseologia espezializatua
 - 4.2. Euskararen erregistro akademikoen garapena
 - 4.3. Aldakortasuna hizkuntza garatuetan eta normalizazio bidean dauden hizkuntzetan
 - 4.4. Hizkuntza-baliabide espezializatuen ezarpena adituen diskurtsoetan

EGITARAU PRAKTIKOA

Ordenagailu-gelako praktiketan lau proiektu eramango dira aurrera.

- A. proiektua: Euskararen normalizazioari buruzko eztabaida eta iritzi-artikulua.
- B. proiektua: Ahoskera zaindua identifikatzea, eta ahoz gorako irakurketan erabiltzea.
- C. proiektua. Helburu didaktikoetarako ahozko komunikazioa: klase magistrala eta bideo tutoriala.
- D. proiektua. Komunikazio akademiko espezializatua: GrALaren laburpena, defentsa eta dibulgazio-hitzaldia.

METODOLOGIA

Eskola eta jarduera gehienak praktikoak izango dira, eta, ahal dela, informatika-gelan egingo dira. Horretarako, eGela erabiliko da.

- Banakako lanak
- Talde-lanak
- Ordenagailu-praktikak
- Eskola teorikoak (ariketetan jorraturiko arazo eta egiturak azaltzeko)
- Ahozko aurkezpenak

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		15		30				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	22,5		22,5		45				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikokoak
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikus ohiko deialdirako eta ezohiko deialdirako orientazioak. % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren ebaluazioa jarraitua izango da. Ebaluazio jarraituak eskatzen du saio guztietara bertaratzea eta zeregin guztiak garaiz entregatzea. Ebaluazio jarraitua egiten hasi eta alde batera uztea erabakitzen duten ikasleek edo hasieratik bukaerako azterketaren bidez bakarrik ebaluatuar izatea aukeratzen duten ikasleek bukaerako azterketa egiteko eskubidea dute (puntuazioaren % 100). Eskubide hori gauzatu ahal izateko, ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat helarazi behar dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, lauhilekoaren hasierako 9 astean barruan (16-24 asteetan).

Halako idatzirik bidali ezean, ebaluazio jarraiturako aurkeztutako zereginak kalifikatuko dira.

UPV/EHUko Ebaluaziorako Arautegiko 12.2 artikulua arabera, azken probaren pisua irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo txikiagoa bada, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino gutxienez hilabete lehenago eskaria egin behar dute deialdiari uko egiteko. Eskari hori, idatziz, irakasgaiaren ardura duen irakasleari aurkeztu behar zaio. Hori horrela, deialdiari uko egiten dioten ikasleek «AURKEZTEKE» kalifikazioa jasoko dute aktan; deialdiari uko egiten ez dioten ikasleek, azken proba aurkezten ez badira, aktan «GUTXIEGI» kalifikazioa izango dute (zenbakizko kalifikazioa: 0).

Ebaluazio jarraiturako tresnak hauek izango dira:

PORTFOLIOA % 30
AHOZKO AURKEZPENAK % 50
GALDETEGIAK % 20

Bukaerako azterketan % 100 ebaluatzea eskatuko duten ikasleentzako orientazioak ezohiko deialdian zehaztutakoak dira.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren % 100 azterketa bidez ebaluatuko da. Azterketa ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoen lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko. Ahozkoa ere ebaluatuko da. Horretarako, azterketa egunean, idatzia bukatu ondoren, 10 minutuko ahozko aurkezpena egingo dute azterketara aurkezten diren ikasleek ordenagailu-gelan bertan. Aurkezpena egiteko diapositibak prest ekarri beharko dituzte azterketa egiten duten ikasleek.

Bukaerako proban erabiliko diren tresnak hauek izango dira:

TEST MOTAKO PROBA % 20
ARIKETA PRAKTIKOAK % 15
IDAZLANA % 15
AHOZKO AURKEZPENAK % 50

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak eGelan jarritako materialak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

EZEIZA, J; ALDEZABAL, I., ELORDUI, A., ZABALA, I., UGARTEBURU, I., ELOSEGI, K. (2010) PREST: Unibertsitateko komunikazio-gaitasunen eskuliburua. EHUko Euskara Errektoreordetzaren sareko argitalpena:
<http://testubiltegia.ehu.es/Prest-komunikazio-gidaliburua>
ETXEBARRIA, J.R. (2011) Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak. EIMAre estilo-liburua ETXEBARRIA, J.R. (2014) Komunikazioa euskaraz ingeniarietan. Bilbo. EHU eta UEU
EUSKALTZAINDIA (2018) Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE).
EUSKALTZAINDIA "Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua" (Euskaltzaindiaren 87 araua)
EUSKALTZAINDIA " Adierazpena euskalkien erabileraz: irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan" (Euskaltzaindiaren 137 araua)
Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordea "Ahoskerak axola du"

Gehiago sakontzeko bibliografia

ALVARADO CANTERO, L. (2017) "Géneros académicos orales: Estructura y estrategias de la exposición académica" Revista Nebrija de Lingüística Aplicada a la Enseñanza de las Lenguas.
ALCOBA, S. (1999) La oralización. Barcelona: Ariel Practicum.
BONDI, M. eta LORÉS, R. (ed.) (2014) Abstracts in Academic Discourse. Berna: Peter Lang
CASTELLÓ, M. (koord.) (2007) Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias. Crítica y fundamentos. Bartzelona: Graó
EUSKALTZAINDIA.1986. Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak
EUSKALTZAINDIA (1992) Hitz elkartuen osaera eta idazkera
GOTI, M. (ed.) (2012) Academic Identity Traits. Berna: Peter Lang
GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2003) Aproximaciones al lenguaje de la ciencia. Burgos: Fundación Instituto Castellano y Leonés de la Lengua. Colección Beltenebros.
ITURBE, J. eta TXURRUKA, J.M. (2020) Amets bikoitza. Euskara zientifikotzen eta zientzia euskaratzen. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
KAUR, K., AFIDA, M.A. (2018) "Exploring the Genre of Academic Oral Presentations: A Critical Review" International Journal of Applied Linguistics & English Literature. Vol.7, 1
UZEI. 1982. Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera
VALEIRAS, J., RUIZ, M.N., JACOBS, G. (2018) "Revisiting persuasion in oral academic and professional genres: Towards a methodological framework for Multimodal Discourse Analysis of research dissemination talks" Ibérica: Revista de la Asociación Europea de Lenguas para Fines Específicos (AELFE), Nº. 35: 93-118
VÁZQUEZ, G. (2001) El discurso académico oral. Guía didáctica para la comprensión auditiva y visual de clases magistrales. Madrid: ADIEU.
YOUNG, K.S. eta TRAVIS, H. P. (2018) Oral communication: skills, choices, and consequences. Illinois: Waveland press. (4. argitalpena, 1. argitalpena 2012)
ZUAZO, K. (2005) Euskara batua. Ezina ekinez egina. Elkar.
ZUAZO, K. (2008) Euskalkiak euskararen dialektoak. Elkar.

Aldizkariak

Elhuyar aldizkaria

<http://aldizkaria.elhuyar.eus/>

Ekaia. Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Aldizkaria <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ekaia>

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.euskaltzaindia.eus/>

<http://www.hiztegia.net/>

<http://hiztegiak.elhuyar.eus/>

http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/kontsultak/

<http://ehu.eus/ehg/zehazki/>

<http://www.euskara.euskadi.eus>

<http://www.ei.ehu.es>

<http://www.elhuyar.eus/>

<https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/ehulku-aurkibidea/>

<http://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>

<http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.eus/p267>-http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/eu <http://31eskutik.eizie.eus/>

<http://www.erabili.eus/>

<http://gaika.ehu.eus/eu>

<https://zientziakaiera.eus/>

<http://teknopolis.elhuyar.eus/?lang=eu>

<https://ahotsak.eus/>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GMATEM31 - Matematikako Gradua

Ikastaroa 4. maila

IRAKASGAIA

26669 - Aldagai Anitzeko Analisia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**AZALPENA**

Aldagai Anitzeko Anisariaren oinarriko kontzeptuak, teknikak eta emaitzak aurkeztuko dira irakasgai honetan. Aldagai anitzeko teknika erabilgarrien definizio, hipotesi eta ezaugarri teorikoak ezagutuko dira. Egokia den testuinguruan teknika bakoitza aplikatzeko beharrezkoak diren metodoak garatuko dira eta eskuragarri dugun software estatistikoaren bidez garaturiko teknikak aplikatu eta lorturiko emaitzak interpretatuko dira.

TESTUINGURUA

Aldagai Anitzeko Analisia irakasgaia hautazkoa da eta Estatistika arloan sakondu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Beharrezkoa da hirugarren mailako Inferentzia Estatistikoa landuta izatea.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

GE01.- Probabilitateen kalkuluaren, estatistikaren eta programazio matematikoaren kontzeptuak eta emaitzak sakon ezagutzea.

GE03.- Zorizko gertaerekin, datu analisiarekin eta funtzio linealen optimizazioarekin erlazionatutako terminologia zuzentasunez erabiltzea.

GE04.- Zorizko gertaerei eta datuen tratamenduari buruzko egoera tipikoak behar bezala modelizatzea

GE05.- Aipatutako egoerak aztertzeke baliabide informatiko egokiak ezagutzea eta horietako batzuk behar bezala erabiltzen jakitea

GE06.- Aipatutako egoera horietan lortu nahi den helburuaren arabera analisi-teknika egokia behar bezala hautatzea.

GE07.- Egoera horiek eskatzen dituzten kalkulu edota bistaratze gra koak behar bezala egitea, baliabide teoriko edota konputazional egokiak erabiliz.

GE08.- Egindako analisien emaitzak zentzu kritikoarekin interpretatzen jakitea.

IRAKASKUNTZA-EMAITZAK

- Aldagai anitzeko datuak aztertzeke teknika nagusien ikuspegi orokorra izatea.

- Datu multzo bat aztertzeke teknika zehatz egokiena arrazoituz aukeratzen jakitea.

- Anisariaren emaitzak zuzen interpretatzen jakitea.

- Aldagai anitzeko datuak aztertzeke edota programazio linealeko eta oso-mistoko arazoak konputazionalki ebazteke baliabide informatiko egokiak ezagutzea eta behar bezala erabiltzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. SARRERA: aldagai anitzeko analisirako sarrera, aldagai anitzeko banaketa normala

2. EREDU LINEALA: erregresio lineal bakuna, erregresio lineal anizkoitza, eredu lineal orokorra.

3. EREDU LINEAL OROKORTUA eta ANALISI DISKRIMINATZAILEA: erregresio logistikoa, poisson erregresioa eta analisi diskriminatzailea.

4. FAKTORE ANALISIA: faktore analisi-motak, faktore anisariaren erdua, anisariaren faseak, faktoreen ateratze eta biraketa, osagai nagusietako anisaria, komunalitateen lortzea, doikuntza-egokitasuna

5. KORRESPONDENTZIA ANALISIA: analisi orokorra, azpiespazio bat, puntu-hodeira doitzea, korrespondentzia sinpleetako anisaria, korrespondentzia anizkoitzetako anisaria.

6. SAILKAPEN AUTOMATIKOA: sailkapen motak, distantzia eta algoritmoak, metodo hierarkikoak, metodo ez hierarkikoak.

Ordenagailuko praktiketan ikasitako estatistika-teknika ezberdinak datu-fitxategi zehatz batean aplikatuko dira baliabide informatikoak erabiliz. Lorturiko emaitzak erabiliko dituzte ikasleek txosten estatistikoa garatzeko.

METODOLOGIA

Ikasturte hasieran, eGela plataforman argitaratuko dira irakasgaiaren apunteak, adibideak ebatzita eta irakasgaia lantzeke beharrezkoak diren material ezberdinak.

Eduki teorikoa klase magistraletan azalduko da, Bibliografian eta erabili beharreko materialen agertzen diren oinarriko erreferentziei jarraituz. Klase magistral horiek osatzeko, ikasgelako praktikak daude, non azalduetako aldagai anitzeko teknika ezberdinei loturiko adibide praktikoen emaitzak landuko diren.

Ordenagailuko praktiketan, ikasleak lan-taldetan banatuko dira eta talde bakoitzak fitxategi zehatz bat landu beharko du, azalduetako teknika ezberdinak aplikatuz, txosten estatistiko bat osatu beharko dutelarik. Txosten estatistiko idatzia entregatu beharko dute eta horren ahozko azalpena egin ere.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	18	3	15		24				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	27	4,5	22,5		36				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikusi orientazioak % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO JARRAITUA:

Azken azterketa idatzia (%50 eta %70 artean).

Praktikak, lanak entregatzea eta ikasturte osoan zehar egin beharreko aurkezpenak (%30 eta %50 artean).

AZKEN EBALUAZIOA: 9. asterarte (hau barne) eska daiteke; data horretarako eskaerarik jaso ezean, ebaluazio jarraitua aplikatuko da.

Azken azterketa idatzia (ebaluazio jarraitua egiten duten ikasleekin batera) (%50 eta %70 artean)

Azterketa praktikoa: lan praktikoa garatzeko 24 ordu. Frogaren hasieran emandako datu basea hartuta, kurtsoan zehar landutako kompetentzia guztiak menperatzen direla frogatu beharko da edo aldagai anitzeko analisiari buruzko lanen bat garatuz (%30 eta %50 artean).

UKO EGITEA

Ohiko deialdian, azterketa idatzira aurkezten ez den edo lan praktikoa entregatu ez duen ikaslearen kalifikazioa Ez-aurkeztua izango da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azken azterketa idatzia (ebaluazio jarraitua egiten duten ikasleekin batera) (%50 eta %70 artean).

Azterketa praktikoa: lan praktikoa garatzeko. Kurtsoan zehar landutako kompetentzia guztiak menperatzen direla frogatu beharko da. (%30 eta %50 artean). Lan praktikoa gainditu bada, ohiko deialdian egindako praktiken nota mantenduko da. Horrela, ez da egongo azterketa praktikoa egin beharrik.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Apunteak eta eGela plataforman argitaraturiko materialak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Julian J. Faraway. Linear models with R., Chapman & Hall/CRC, 2014 (second ed.)
- Julian J. Faraway. Extending the linear model with R, Chapman & Hall/CRC, 2005
- Michael Greenacre. La práctica del análisis de correspondencias, Fundación BBVA, 2008.
- David W. Hosmer, Stanley Lemeshow and Rodney X. Sturdivant. Applied Logistic Regression, Wiley, 2013 (third ed.).
- Daniel Peña, Análisis de datos multivariantes, McGraw-Hill, 2002.
- Sanford Weisberg, Applied Linear Regression, Wiley, 2013 (fourth ed.).
- Husson, F., Le, S., Pages, J. Exploratory multivariate analysis by example using R. Chapman & Hall/CRC Texts in Computer Science and Data Analysis, 2017 (second ed.)

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Annette J. Dobson & Adrian Barnett. An Introduction to Generalized Linear Models. Chapman & Hall/CRC Texts in Statistical Science. 2008 (third ed.).
- Michael Greenacre.. Theory and application of Correspondence Analysis. London Academic Press, 1984.
- Frank E. Harrell. Regression modeling strategies. Springer, 2001
- Michel Jambu. Exploratory and Multivariate Data Analysis. Academic Press, 1991.
- David G. Kleinbaum, Lawrence L. Kupper, Azhar Nizam, and Eli S. Rosenberg. Applied Regression Analysis and Other Multivariable Methods. Cengage Learning, 2013 (fifth ed.).
- Peter McCullagh & John A. Nelder. Generalized Linear Models. Chapman and Hall, 1989. ((second ed.).
- Ewout W Steyerberg. Clinical prediction models: a practical approach to development, validation, and updating.

Springer, 2008

Aldizkariak

- Biometrical journal: <http://onlinelibrary.wiley.com/journal/10.1002/%28ISSN%291521-4036/>
- BMC Medical research methodology: <http://www.biomedcentral.com/bmcmedresmethodol>
- Journal of Applied Statistics: <http://www.tandfonline.com/loi/cjas20#.VWw8eUYpp8E>
- Statistics in medicine: <http://onlinelibrary.wiley.com/journal/10.1002/%28ISSN%291097-0258>
- Statistical methods in medical research: smm.sagepub.com/

Interneteko helbide interesgarriak

- R-project: <http://www.r-project.org>

OHARRAK

R Core Team (2022). R: A language and environment for statistical computing. R Foundation for Statistical Computing, Vienna, Austria. URL <http://www.R-project.org/>.

COURSE GUIDE

2024/25

Faculty 310 - Faculty of Science and Technology**Cycle** .**Degree** GMATEM31 - Bachelor's Degree in Mathematics**Year** Fourth year**COURSE**

26674 - Algebraic Geometry

Credits, ECTS: 6**COURSE DESCRIPTION**

In this course we study (geometric) varieties that are described as the zero sets of polynomial equations. We start by understanding the relation between varieties and polynomial rings using techniques in commutative algebra. Additionally, we set background in affine and projective geometry over algebraically closed fields (most of the time, over the field of complex numbers) and then, we study the Zariski topology, irreducible varieties, Bezout theorem for intersection of curves in the projective plane and the additive structure of irreducible cubic curves.

We recommend to have taken the following courses: Algebraic Structures (2nd year), Commutative Algebra (3rd year) and Algebraic Equations (3rd year), which are devoted to developing the fundamentals of abstract algebra and its main applications. Also, we recommend to have at least a B2 level in English to follow the course.

COMPETENCIES/LEARNING RESULTS FOR THE SUBJECT

SPECIFIC COMPETENCES:

M11CM09 - To know the ring of fractions of \mathbb{Z} and of ring of polynomials over a field (unity, prime ideals, maximal ideals, etc). To understand the relation between the ring of fractions and its quotients.

M11CM10 - To be able to apply the structure theorem of Artinian rings to the quotients of polynomial rings with two variables (with coefficients in a field) by ideals generated by two coprime polynomials.

M11CM11 - To be able to apply Hilbert's Nullstellensatz theorem to study the existence of solutions of a system of equations over an algebraically closed field.

M11CM12 - To be able to compute the index of intersection point of two planar curves.

M11CM13 - To be able to apply Bezout's theorem to study the planar curves: inflection points, parametrization of curves, etc. To be able to sum points in an irreducible cubic curve.

LEARNING RESULTS:

- Compute the unities, prime and maximal ideals, etc. of certain fractions of \mathbb{Z} and of polynomial rings with coefficients in a field.

- To be able to apply the zeroes theorem of Hilbert to study the existence of solutions of a system of equations with coefficients in an algebraically closed field.

- To be able to compute the index of intersection point of two planar curves.

- To be able to apply Bezout's theorem to study the planar curves: inflection points, parametrization of curves, etc. To be able to sum points in an irreducible cubic curve.

Further key words in learning results: Noetherian rings, Zariski topology, algebraic varieties, coordinate rings, tangent space, multiple points, singularities.

Theoretical and Practical Contents

1. RINGS OF FRACTIONS: Definition and main properties. Localization of a ring in a prime ideal. Ideals in rings of fractions.

2. NOETHERIAN RINGS: Definition properties and examples.

3. HILBERT NULLSTELLENSATZ: Integral extensions of rings, Zariski theorem. Maximal ideals of a polynomial ring over an algebraically closed field. Hilbert nullstellensatz.

4. PLANE CURVES: Tangents. Multiple points. Intersection index of two curves in a point.

5. APPLICATIONS: Bezout theorem and applications: Pascal and Pappus and the additive group structure of a cubic irreducible curve. Resolution of singularities. Quadratic and cubic surfaces.

TEACHING METHODS

The theoretical contents will be presented in master classes following the basic references in the bibliography. These lectures will be complemented with problem classes (classroom practice), in which students will apply the knowledge acquired in the theoretical lectures in order to solve the problems. In the seminar sessions, exercises and representative examples will be considered. Such exercises will be given to the students in advance so that they will be able to work on them to work out the solutions by themselves. Students must participate actively in the seminar sessions and they will be encouraged to discuss about the solutions.

TYPES OF TEACHING

Types of teaching	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Hours of face-to-face teaching	36	6	18						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	54	9	27						

Legend: M: Lecture-based S: Seminar GA: Applied classroom-based groups
GL: Applied laboratory-based groups GO: Applied computer-based groups GCL: Applied clinical-based groups
TA: Workshop TI: Industrial workshop GCA: Applied fieldwork groups

Evaluation methods

- Continuous evaluation
- End-of-course evaluation

Evaluation tools and percentages of final mark

- Written test, open questions 60%
- Exercises, cases or problem sets 25%
- Oral presentation of assigned tasks, Reading, 15%

ORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT

To pass the subject it will be enough to follow and to carry out correctly the activities in class including seminars and projects. If the student decides to go to the final exam, the final mark will be the maximum between the mark of the final exam and the weighted average under the following formula:

$$\text{Final Mark} = \max\{0, 2x(\text{Mark of the Partial Exam}) + 0, 4x(\text{Mark Oral Exposition, Projects and Problems}) + 0, 8x(\text{Mark of the Final Exam} - 5), \text{Mark of the Final Exam}\}$$

The interest and willingness of the student during the course will also be taken into account.

EXTRAORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT

The final mark will be that which is obtained in the written exam corresponding to this call.

MANDATORY MATERIALS

BIBLIOGRAPHY

Basic bibliography

BIBLIOGRAFIA

- M. ATIYAH, I.G. MACDONALD. Introducción al Algebra Conmutativa, Ed. Reverté, 1973.
- D. COX, J. LITTLE, D. O'SHEA. Using Algebraic Geometry, Springer, 1998.
- W. FULTON. Curvas Algebraicas, Reverté, 1971.
- F. KIRWAN. Complex Algebraic Curves, Cambridge Univ. Press, 1992.
- E. KUNZ. Introduction to Commutative Algebra and Algebraic Geometry, Birkhäuser, 1985.
- C. MUSILI. Algebraic Geometry for Beginners, Hindustan Book Agency, 2001.
